

Henry Bengoa Inventarium

Egilea: Bernardo Atxaga

Antzerki taldea: Hika Teatroa

Zuzendariak: Jorge Amich eta Macarena Pombo

Antzezleak: Joseba Aierbe, Miren Gojenola, Mikel Laskurain

Jakin nuenean Hika antzerki taldekoek Atxagaren *Inventariuma* egitekotan zeudela, zerbait gertatu zitzaidan bihotzean: KRA! Izan ere, ez bainekien zer nolako moldaketa egin beharko ote zuten antzezteko egina edo pentsatua ez zen testuarekin. Zuzeneko emanaldiak eman izan zituzten Emak bakia baitako lagunek,

baina errezital-kantaldi gisa. Ordea, egitura dramatikoak egiteak beste zerbait eskatu beharko luke. Hartaz, jakin-min ez agertu nintzen Donostiako emanaldira.

Eskenografia xumea, Henry Bengoaren espazioa adieraziz. Hiru antzezleri, Henry bata bere bila abiatzen diren bi lagun besteak, narratzaileak diruditenak askotan. Bere lagunaren bila abiatu dira non den jakin gabe. Zuzenbide bat: Gotenstrasse 54. Hamburgo. Ez dago han beren laguna. Utzitako gauzak biltzen hasterakoan, inventarium egiten, gauza arrunten artean hainbat idatzi, burutazio, lagunaren egoeraren puzzle baten gisa.

Proposamena interesgarria iruditzen zait, arriskatzen duten horietarikoa, eta gaur egun ez da askotan halakorik ikusten euskal teatroan. Alde honetatik poztekoa da,

beraz, Hikatarren lana. Dena dela, zenbait alde-tan hankamotz ikusten dut. Garrantzitsuena agian antzezleriak testuaz gehiegi arduratuak ikusi nituela, lotuegiak. Naturaltasun pittin bat falta zaiela uste dut. Aurrerantzean seguraski arazo hori gaindituko dute: beraien lanak oraindik gehiago irabaziko luke horrela.

Orokorrean ondo ikusten den ikuskaria dugu hau. Laguntasunaren inguruan eta bizitzaren joan-etorriaz hausnartzera gonbidatzen gaituena. Eta agian baita zerbait gehiagora ere. Norberaren inventariuma egitera akaso.

✎ Joxemari Carrere

AIZU!